## ERRONKARIBARKO BATZORDE NAGUSIAK 2022KO UZTAILAREN 14AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

2022ko uztailaren 14ko 12:00etan, Izabako udaletxean, Asier Gil Artuch idazkaria izanik eta Carlos Anaut Abadia Izabako udaleko alkateordea Batzordeburu dela, bera Izabako ordezkari gisa agertuz, Erronkaribarko Batzorde Nagusiak Ohiko Osoko Bilkura egin du. Gainerako herrien izenean ondoko ordezkariak bertaratu dira:

**UZTARROZE**: Jone Alastuey Garcia
**URZAINKI**: Felix Galetx Laiana, Eneko Eguiguren Ruiz eta Virginia Atanes
**Erronkari**: Amparo Gale Viñuales
**GARDE**: Jose Javier Echandi, Ricardo Galan
**BURGI**: Idoia Glaria
**BIDANKOZE**: Tomas Pasquel Ayechu

Batzordeburuak bilkura hasi eta gai-zerrendari jarraiturik honako erabaki hauek hartu dira:

HIRU BEHIEN ZERGA

Ohiko gaiari dagokionez, uztailaren 13an San Martin Harrian egindako akta osorik irakurrita, Baretos ibarrak antzina-antzinako ohiturari jarraituz Erronkaribarri emandako Hiru Behien Zergaren berri eman da. Akta Erronkaribarko etxeko artxibategiko bere espedientean artxibatu eta Batzordearen aldizkarian argitaratuko da.

**1. Oihan-enkanterako baldintzen agiria onestea**

Ekainaren 28ko 247/2022 Ebazpena, Basogintza eta Ehiza Zerbitzuarena, Erronkaribarko Batzorde Nagusiaren Zaltua alderdian baso-aprobetxamendua baimentzen duena jaso ondoren, aprobetxamendu hori arautuko duen

## ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE LA JUNTA GENERAL DEL VALLE DE RONCAL CELEBRADA EL DÍA 14 DE JULIO DE 2022

En la Sala Consistorial del Ayuntamiento de la villa de Isaba, siendo las doce horas del día catorce de julio de dos mil veintidos, con asistencia de la Secretario, D. Asier Gil Artuch y bajo la Presidencia del Sr. 1er Teniente Alcalde de la Villa de Isaba, D. Carlos Anaut Abadía, que concurre representando a esta villa, se reúne la Junta General del Valle de Roncal, en **Sesión Ordinaria**, concurriendo por las demás Villas la representación siguiente:

POR **UZTÁRROZ**: Dña. Jone Alastuey García
POR **URZAINQUI**: D. Félix Galetx Laiana y D. Eneko Eguiguren Ruíz y Dña Virginia Atanes
POR **RONCAL**: Dña. Amparo Galé Viñuales
POR **GARDE:** D. Jose Javier Echandi Sarries, Ricardo Galan
POR **BURGUI**: D. Idoia Glaria
POR **VIDÁNGOZ**: D. Tomás Pasquel Ayechu

Abierta la sesión por el Sr. Presidente y siguiendo el orden del día, fueron adoptados los siguientes acuerdos:

ENTREGA DEL TRIBUTO DE LAS TRES VACAS:

En relación con el asunto Ordinario se da cuenta, mediante lectura íntegra, del Acta extendida en el día de ayer 13 de julio, en la Piedra de San Martín y de la recepción, como es costumbre inmemorial, del Tributo de las Tres Vacas que entrega el Valle de Baretous a este de Roncal, acordándose el registro del Acta de referencia en el expediente que existe al efecto en el archivo de la Casa del Valle e incluirla en el boletín que edita la Junta para su reparto entre el vecindario.

1. **Aprobación de los pliegos de la subasta forestal.**

A la vista de la resolución 247/2022 de 28 de junio del Servicio Forestal y Cinegético por el que se

baldintza ekonomiko-administratiboen agiria egin zen.

Enkantea egitea premiazkoa da, etxeetarako egur-sortak barne sartzen baititu. Basogintza, Abeltzaintza, Ingurumen eta Errege Bardeetako Batzordea ez da bildu gaia aztertu eta erabakia hartzeko; nolanahi ere, deialdiarekin batera baldintzen agiri teknikoa, egur-sorten balorazioa eta baldintza ekonomiko-administratiboen agiria batzordekideen eskura jarri ziren 2022ko uztailaren 1ean. Ondorioz, Batzorde Nagusiak honako erabaki hau hartu du:

1. Aprobetxamendua arautu behar duen baldintzen agiria onestea, eta horri gehitzea Nafarroako Gobernuko Basogintza eta Ehiza Zerbitzuko zuzendariaren ekainaren 28ko 247/2022 Ebazpenean agertzen diren baldintzak, zehaztapenak eta salbuespenak.

2. Zaltua alderdiko bi egur-sailak saltzea, 15.372 m3 ler gorri eta 1.009 m3 pago. Lizitazioaren hasierako prezioak: lehenengo egur-saila 126.384,83 € (BEZik gabe) eta bigarrena 132.264,17 € (BEZik gabe).

3. Lehenengo egur-sailetik 300 m3 pago gordeko da etxeetako egur-sortetarako. DRyMArekin kontsultatu ondoren, partikularrek erauzketa-lanengatik ordaindu behar duten prezioa 40 €/ tona izanen da.

**2. Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari egindako proposamena, suteei aurre egiteko**

Duela gutxi Nafarroan izandako suteak ikusita eta ibarreko mendien egoera kontuan hartuta, Batzordeburuak proposamen-zirriborro bat egin zuen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentura bidaltzeko; aldez aurretik horren berri eman zitzaien batzordekideei, ekarpenak eta proposamen berriak

autoriza el aprovechamiento forestal en el monte comunal de la Junta General del Valle de Roncal, más concretamente en el paraje de Zaltua, se procedió a elaborar el pliego económico administrativo que regirá dicho aprovechamiento.

La Comisión de Ganadería Forestal, Medio Ambiente y Bardenas Reales no se ha reunido para valorar dicha resolución debido a la urgencia que tiene la celebración de la subasta, ya que las leñas para hogar son incluidas en el mismo. En cualquier caso el pliego técnico y la valoración de los lotes, junto con la propuesta del pliego económico administrativo fueron puestos a disposición de los miembros de esta Junta con la convocatoria de esta junta el pasado 1 de julio de 2022. En consecuencia la Junta acuerda:

1º Aprobar el Pliego de Condiciones que ha de regir el aprovechamiento y adicionar al Pliego de Condiciones, ahora aprobado, las condiciones, precisiones y salvedades que resultan de la Resolución 247/2022 de 28 de junio del Director del Servicio Forestal y Cinegético, del Gobierno de Navarra.

2º Proceder a la venta de 15.372m3 de pino silvestre y 1.009 m3 de árboles de haya incluidos en dos lotes sitos en el paraje "Zaltua", siendo el precio base de licitación del primero 126.384,83€ (IVA excluido.) y el segundo 132.264,17€ (IVA excluido).

3º En el primero de los lotes se reservan 300m3 de haya para leña de hogar. El precio de los trabajos de extracción que se repercutirá a los particulares, que tras consulta con el Departamento de Desarrollo Rural y Medio Ambiente se estiman en 40€/tonelada entregada.

**2. Propuesta de prevención de incendios al Departamento de Desarrollo Rural y Medio Ambiente del Gobierno de Navarra.**

Vistos los incendios ocurridos recientemente en Navarra y teniendo en cuenta la situación en la

jasotzeko.

Batzorde Nagusiak erabaki du zenbait proposamen bidaltzea Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, eta, aldi berean, Departamentuari biltzeko eskaera egin dio, suteen aurkako prebentzio-neurriak ahalik eta azkarren hartzeko eta mendia hobetu eta biziberritzeko.

**3. Irati Irratiaren kuota**

Erronkaribarko Batzorde Nagusiak 2022ko apirilaren 19an egindako Gizarte Ongizate, Hezkuntza, Musika, Euskara, Kultura eta Kirol Batzordean azaldu zen 2 €/biztanleko eman behar zirela Irati Irratia proiektuaren funtzionamendurako, eta Batzordeak 1.600 € inguruko ekarpena egin behar zuela. Ordainketa egiteko moduaz jardun zen, eta herri bakoitzak 230 € ematea adostu zen. Ondorioz, Batzorde Nagusiak gehiengoz erabaki du, Izabako ordezkaritzaren aurkako botoarekin, Batzordeak ordaindu behar duen Irati Irratiaren funtzionamendu-kuota 7 herrien artean zati berdinetan hainbanatzea.

**4. Larreen plana**

Jakinarazi da ekainaren 29an Entretantos fundazioak larreen planari buruzko txosten bat aurkeztu zuela. Horretan azaltzen zen nola ikusten zuten egoera ibarreko larreen plan berri bat egiten hasteko. Ezinbestekotzat jo zen Batzordeak larreen plana egiteko eta idazteko erabakia ezeztaezina dela argi adieraztea. Horrenbestez, Batzordeak gehiengoz, Uztarroze, Izaba, Urzainki, Erronkari, Garde eta Burgiren aldeko 6 botoekin eta Bidankozeren abstentzioarekin, honako adierazpen hau egitea erabaki du:

*Saihestezina da* ***larreen plan berri bat***

que se encuentra el monte en el Valle de Roncal, por parte del Presidente de la Junta se elabora un primer modelo de propuesta para enviar al Departamento de Desarrollo Rural y Medio Ambiente, que previamente es puesto en conocimiento de los miembros de la Junta para recibir aportaciones y nuevas propuestas.

La Junta acuerda enviar al Departamento de Desarrollo Rural y Medio Ambiente del Gobierno de Navarra las diferentes propuestas, solicitando a su vez reunirse con dicho departamento para procurar que se tomen mediadas preventivas contra los incendios, con la mayor celeridad posible, y que sirvan a su vez para mejorar y regenerar el monte.

**3. Cuota Irati Irratia.**

En la comisión de Bienestar Social, Educación, Escuela de Música, Euskera, Cultura y Deporte de la Junta General del Valle de Roncal celebrada el día 19 de abril de 2022 se expuso que para el funcionamiento del proyecto Irati Irratia en el Valle de Roncal se debían aportar 2€ por habitante, en el caso de la Junta unos 1.600€. Se planteaba como se iba a realizar el pago. En esta comisión se acordó que cada pueblo aportase la cantidad de 230€. En consecuencia la Junta General del Valle de Roncal acuerda por mayoría repartir en partes iguales el gasto que le supondrá a la Junta el pago de la cuota de funcionamiento de Irati Irratia, con el voto en contra de la representación de Isaba y con el voto a favor de Uztarroz, Urzainqui, Roncal, Garde, Burgui y Vidangoz repartir el gasto entre los 7 pueblos.

**4. Plan de Pastos.**

Se explica que el día 29 de junio se presentó por la fundación entretantos un informe sobre como veían ellos la situación para iniciar la elaboración de un nuevo plan de pastos en el valle de roncal. Se explicó que se veía indispensable que desde la junta se adoptase un acuerdo que mostrase que

*egiteko beharra, eta, beraz, plana abian jartzeko **erabakia behin betikoa** da.*

*Plana egiteko, **partaidetza-prozesu ahalik eta irekiena** garatu nahi da, abeltzainen beharrezko parte-hartzearekin bai eta ibarreko gizarte-eragile guztiekin ere. Aldez aurretik biztanleei informazio argia eta gardena emanen zaie plana izateak edo ez izateak dituen ondorioen gainean.*

*Parte-hartze prozesu horretatik sortzen diren **gidalerroak larreen planaren dokumentuan jasoko dira**, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:*

*I. Ibarreko gizarte-eragile guztien artean egindako adostasun-akordio baten emaitza izatea, abian jarritako partaidetza-prozesuaren bitartez.*
*II. Teknikoki posible izatea.*
*III. Ekonomikoki bideragarriak izatea.*
*IV. Arlo horretan indarrean dagoen araudia eta legeria betetzea.*
*V. Larreen plan berri honetarako beharrezkoak diren alderdi teknikoak partaidetza-prozesuan adostasunez zehazterik ez badaude, plana idatzi duen talde teknikoak ezarriko ditu eta Batzordeak onetsiko ditu.*
*VI. Erronkaribarko Batzorde Nagusiak larreen gaineko subiranotasun-kuotak ez galtzea.*

**5. Gizarte-langilearen idazkia, lanaldi-murrizketa eskatuz**

Irakurri da Maria Jesus Mandacen Elizalde gizarte-langileak 2022ko uztailaren 29an aurkeztu zuen idazkia. Horren bidez lanaldia heren batez murrizteko eskatu du, hiru hilabetez, lana eta familia bateragarri egiteko, gaixotasun larria izateagatik ezinduta dagoen senarra eta 2008/12/31n jaiotako seme-alaba adingabeak zaintzeko; hori dena Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen lanaldia

la decisión de elaborar el y llevar a cabo la redacción del plan de pastos es irrevocable. En este sentido la Junta acuerda por mayoría con 6 votos a favor de Uztarroz, Isaba, Urzainqui, Roncal, Garde y Burgui y la abstención de Vidangoz lo siguiente:

*Que la necesidad de realizar un **nuevo Plan de Pastos** es ineludible, y que por tanto la **decisión de su puesta en marcha es definitiva**.*

*Que para su elaboración se pretende desarrollar un **proceso de participación abierto** y lo más amplio posible con todos los agentes sociales del Valle y con la participación necesaria del sector ganadero. Que en este sentido debe existir una información previa clara y transparente a la sociedad local de lo que puede suponer tener o no tener un Plan.*

*Que las directrices que surjan de este proceso de participación **serán asumidas en el nuevo documento de Plan de pastos siempre** que cumplan los siguientes requisitos:*

*I. Que sean fruto de un acuerdo de consenso que se realice entre todos los agentes sociales del valle a través del proceso de participación puesto en marcha.*
*II. Que sean técnicamente posibles*
*III. Que resulten económicamente viables.*
*IV. Que se ajusten a la normativa y legislación vigente en la materia.*
*V. Que los aspectos técnicos necesarios para este nuevo Plan de pastos que no puedan ser definidos en el proceso de participación por consenso, serán establecidos por el equipo técnico redactor del Plan y aprobados por la Junta.*
*VI. Que no se pierdan cuotas de soberanía que la Junta General del Valle de Roncal tiene sobre sus pastos.*

**5. Solicitud de reducción de jornada de la Trabajadora Social.**

Se da lectura al escrito que presenta el día 29 de julio de 2022 la trabajadora social Dña. María Jesús Mandacen Elizalde, en el que solicita la reducción de 1/3 de la jornada laboral durante tres meses, al amparo de lo recogido en el

murriztea arautzen duen apirilaren 4ko 27/2011 Foru Dekretuaren 3.1 b) artikuluan jasotakoaren babesean.

Murriztutako denbora egunetan metatu ahal izateko eskatu du, 27/2011 Foru Dekretuaren 8.2 artikuluarekin bat. 2022ko abuztuaren 1ean hasiko litzateke lanaldi-murrizketaren metaketa baliatzen, abuztuaren 31ra arte; aldi horretan ez da lantokira joanen. Irailean eta urrian lanaldi osoan lan egin du. Murrizketa 2022/10/31n amaituko da.

Jose Javier Echandi Sarries bilkura-aretotik atera da.

Batzordea Maria Jesus Mandacen Elizalderen ordezkapena egiteko gizarte-langile bat kontratatzen saiatu da, baina ez du aurkitu. Lan Aholkularitzarekin kontsultatu ondoren, Batzordeak uste du lanaldi-murrizketa langilearen eskubidea dela eta eman behar zaiola. Murrizketa metatzeari dagokionez, eman ahal izanen da baina zerbitzuaren beharrak kontuan hartuta. Oraingoz ezin da izan Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren bulegoa arretarik gabe geratuko litzatekeelako; izan ere, ez da aurkitu ordezkapenerako langilerik eta bulegoko gainerako langileei oporrak eman zaizkie.

Gogorarazi da Batzordeak eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak OGZren funtzionamendurako hartutako akordioetako zortzigarren puntuan ezartzen dela bulegoa ezin dela arretarik gabe geratu.

Nolanahi ere, Batzordeak ordezkapenerako langileak bilatzen jarraituko du abuztuaren 8ra arte -egun horretan bulegoa langilerik gabe geratuko litzateke-, hortik aurrerako egunetan baimena ematen saiatzeko. Egoera zein den

artículo 3.1 b) del Decreto Foral 27/2011, de 4 de abril, por el que se regula la reducción de la jornada laboral del personal funcionario de las Administraciones Públicas de Navarra, para la conciliación de la vida laboral y familiar, como consecuencia de tener a su marido incapacitado por padecer enfermedad grave y tener bajo su guarda y custodia a hijos menores nacidos el 31/12/2008.

El tiempo de reducción solicitado será de acumulación de jornadas, de acuerdo con lo previsto el art. 8.2 del Decreto Foral 27/2011, comenzando el día 1 de agosto de 2022, siendo dicho día el primero en el que comenzará a disfrutar de la acumulación de la reducción de jornada y hasta el 31 de agosto, en las que estará liberada de acudir al puesto de trabajo. Dice que la finalización de la reducción se producirá el 31/10/2022, estando obligada a prestar sus servicios durante los meses de septiembre y octubre a jornada completa.

Abandona la sala José Javier Echandi Sarries.

La Junta tras haber intentado la contratación de un/a trabajador/a social para realizar la sustitución de Dña. Maria Jesus Mandacen Elizalde, no ha encontrado personal para realizar la sustitución. En consecuencia y tras consultarlo con la Asesoría Laboral la Junta entiende que la reducción de 1/3 de jornada laboral es un derecho de la trabajadora por lo que no puede más que acceder a ello, por lo que por unanimidad, se acuerda acceder a dicha solicitud.

Sin embargo, se entiende que la acumulación de esta reducción podrá concederse atendiendo siempre a las necesidades del servicio y por ahora no es posible concederla en su totalidad ya que la oficina del Servicio Social de Base quedaría sin atención, ya que además de no haber podido encontrar personal para la sustitución ya hay vacaciones concedidas para el resto de personal de la oficina.

jakinda, ezinezkoa bada Batzordea prest dago langilearekin batera irtenbide bat bilatzeko. Batzordeak gehiengoz erabaki du, Uztarroze, Urzainki, Garde, Bidankoze eta Burgiren aldeko botoekin eta Erronkari eta Izabaren abstentzioarekin, eskatutako metaketa ez duela onetsiko ordezkapenik edo irtenbide adosturik lortu ezean.

**6. Aurrekontu-aldaketa onestea, administrari laguntzaile baten kontratAziorako aurrekontu-zuzkidura egiteko**

Aurrekontu-aldaketa hauek egitea erabaki da:

1.- Kreditu-gehigarrikoa kontu-sail hauei, diruzaintzako gerakinaren kargura finantzatuko direnak: Administrari Laguntzailearen Ordainsaria kontu-sailari (4.300 €) eta Gizarte Segurantza kontu-sailari (13.042,65 €).

Se recuerda que en los acuerdos de funcionamiento del SSB adoptados entre la Junta y el Servicio Social de Base, en su octavo punto, establecen que la oficina no puede quedar desatendida.

En cualquier caso, la Junta continuará tratando de encontrar personal para la sustitución hasta el día 08 de agosto, fecha en la que la oficina quedaría sin personal, para tratar de conceder la acumulación los siguientes días solicitados durante el mes de agosto. De no ser posible y siendo conocedores de la situación, la Junta se muestra dispuesta a buscar una solución intermedia junto con la trabajadora. De no encontrar sustitución ni ninguna solución intermedia la Junta acuerda por mayoría no conceder la acumulación solicitada, con los votos en contra de Uztarroz, Urzainqui, Garde, Vidangoz y Burgi y con la abstención de Roncal e Isaba.

**6. Aprobación de modificación presupuestaria para dotar presupuestariamente la contratación de una Auxiliar Administrativa.**

Se acuerdan las siguientes modificaciones presupuestarias:

1º.- De suplemento de crédito a las siguientes partidas presupuestarias que se financiarán con cargo al remanente de tesorería: 4.300€ a la partida de Retribución de Auxiliar Administrativa y 13042,65€ a la partida de Seguridad Social.